

ortzadar

larunbata, 2016ko maiatzaren 7a. 449. zenbakia

deia.com/ortzadar

euskal kulturaren kolore guztiak



ERROMERIAK

Azken aldiko loraldi ederrera bizi du plazako dantzak; han eta hemen egiten diren erromeriak dira horren lekuko

-- 4-5. orrialdeak --



LITERATURA · ANTZERKIA · ARTEA · ZINEMA · MUSIKA · DISEINUA · PUBLIZITATEA · ARKITEKTURA · INTERNET · KOMIKIA · BIDAIK · ZIENTZIA · DANTZA · IRITZIA · KRITIKA · LITERATURA · ANTZERKIA · ARTEA · ZINEMA · MUSIKA · DISEINUA · PUBLIZITATEA · ARKITEKTURA · INTERNET · KOMIKIA · BIDAIK · ZIENTZIA · DANTZA · IRITZIA · KRITIKA · LITERATURA · ANTZERKIA · ARTEA · ZINEMA · MUSIKA · DISEINUA · PUBLIZITATEA · ARKITEKTURA · INTERNET · KOMIKIA · BIDAIK ·

dantza



aniztasuna eta aberastasuna galtzea eragin zuela kontatu du Bikandik, eta era berean konplexuak sortu. “Edadeko hainbat lagunek komentatu izan didate sasoi batean lotsatu egiten zirela erromerietan dantzan egitean; dantza taldeetako jendea etortzen zen euren teknikarekin eta denak ederto dantzatzuz eta berdindardindin, eta euren dantzan egiteari utzi zioten azkenean”, kontatu du.

Dantza taldeek batez ere ikuskizuna egiten dute: haiek dantzatu eta publikoak ikusi. Baina hori dantzaren esparru bat baino ez dela dio Ibañezek. “Badira kale dantzaldirik haurak ere eta, agian ez garai batean bezala, baina badira biltzeko puntu bat. Elkartu, lagunekin bildu, dantzatu, pote bat hartu... Ez da garai batean bezala jendea dantzaldira joaten zela egun gazteak diskoteketara doazen modura, ligatzera edo auskalo. Baina nik uste dut funtzio hori ere badutela”. Ibañez bat dator Bikandik dantzaren akademizazioaz esanda koarekin, baina gauzak aldatuz doazela uste du: “baliteke batzuei konplexua sortu izana eta horren ondorioz plazak hustu izana urte batzuetan, baina nik uste dut poliki-poliki berriz betetzen ari direla”.

SUSPERRALDI BETEAN “Ikusten da jendea ikasten ari dela, lehenagotik ikasita duenak ere nahi du dantzatu”, dio Ibañezek. Eskaria badagoela uste du, izan ere, Iruñea eta Iruñerrian dantza ikastaro asko ematen dira orain eta jendeak ikasten duena praktikan jartzeko aukera izan dezan aukera ona da Karrikadantza. Ekimen horretatik abiatuz, Iruñerriko beste herri batzuetan Dantzan Enparantzan egiten da (kontzeptu berbera, baina beste izen batekin). Horrelako ekimenak ugaritu direla uste du Ibañezek. “Euskal Herri osoan ematen ari den fenomeno delako esango nuke. Ikastaroak ugaritu dira, eta denetik hurreratzen da jendea: dantza taldeetakoak, modu aktiboan ez dabilzanak... Dantzatze gogoa dutenak, azken finean”. Dantzari mota ezberdinak aurki daitezke Karrikadantzan: hasiberriak, beteranoak, egun dantzan egiten dutenak eta beste modu batean dantzatu nahi dutenak... Horiei erantzuna ematen dien proiektua da Karrikadantza. “Hasieratik nahiko arrakastatsua izan da. Nabarria plaza hasi zen, eta gero tokiz aldatzen joan da. Publikoa beti izan da nahiko fidela eta ugarria eta beti plaza bete ikusten da”, jakinarazi du Ibañezek.

Bikandiren hitzetan, eurentzat “erronka” bat izan zen plaza bakoitzera joan eta bertako jendea erakartzea, hutsetik hasi baitziren. Baina ordutik aldaketak ikusi ditu Aikokoak: “Egia esan, ez dakit guk jada taldeetara edo zale multzoa egin dugulako edo, baina plazetan askoz dantza zaletasun handiago dagoela igartzen dugu orain. Jendeak dantzatze gogoa duela, ikasten dagoela eta gero ikasten dituenak praktikatzea nahi dituela, alegia”. Euren erromeria egiteko modua ere aldatu egin da urte hauetan, izan ere, erromeriak jada ez dira lehen bezain didaktikoak, hurbiltzen jendeak dantzak dakizkielako. Erromerien “susperraldia” dagoela uste du Aiko taldearen sortzaileak. “Hasi ginenean ezingo genuke imajinatu ere egin orain esku artean ditugun dantza zale guztiak izatea eta gaur egun egin ahal ditugun ekimenak egitea, eskolak eman, etab. Guk behintzat bai ikusten dugu susperraldi bat dagoela, egon dela edo, behintzat, bidean gaudela”.



gehiago batzen dituzte. Irudietan, Durangoko Plateruenan oraintsu eginiko saio jendetsu bat. AIKO TALDEA